



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Ikusten banauzu, egin negar

Elba ibaiaren arroa, 1417. Lehorteak eraginda ibaiaren mailak nabarmen egin zuen behera, eta norbaitek ur maila markatu zuen harri batean, idazkuna bat zizelkatuta: "Harri hau berriro ikusten baduzu, negar egingo duzu. Ura maila honetan zegoen 1417 urtean".

Hurrengo idazkuna 1616koa da: "Ikusten banauzu, egin negar". Harri horretan beste hainbat urte daude markatuta: 1707, 1746, 1790, 1800, 1811, 1830, 1842, 1868, 1892 eta 1893.

Ez da antzeko markak eta inskripzioak dauzkan harri bakarra. Elba ibaiaren arroan beste asko daude eta Rin, Mosel, Mündesee edo Weser ibaietan ere aurkitu dituzte halakoak. "Ikusi ninduenak negar egin zuen. Orain ikusten nauenak negar egingo du" dio horietako batek; "Bizitza berriro loratuko da harri hau desagertzen denean" beste batek.

Europa erdialdeko ibai horien ur maila baxuak lehortea adierazten zuen, uzta txarrak eta, beraz, urritasuna egungo Alemanian, Txekian, Eslovakian, Austrian eta Hungarian. Alemanian bada markatutako harri bat "Hungerjahr 1947" dioena ("Gose urtea 1947", alegia). Horregatik alemaneraz *hungersteine* esaten diete harri hauei, gosearen harriak. Bigarren Mundu Gerraren ostean, baldintzak berez gogorrek zirenean, 1947ko negu hotz eta lehorrak are gogorragoak egin zituen



PETR DAVID JOSEK

Europa erdialdeko ibaietako *Hungersteine* edo "gosearen harrietan" iraganeko lehorte urteak daude markatuta.

bizi baldintzak. Eta ez soilik uzta txarren eraginez: ur maila asko jaisteak edo urak izozteak eremu horietan hain garrantzitsua izan den ibaien nabigagarritasuna oztopatzen du eta, beraz, lehengaien garrarioa ere bai.

Hasieran aipatutako harria, 1417ko marka zaharrena duena, 2013an aztertu zuten txekiar ikerlariek eta 2022ko

udan geratu zen agerian azkenekoz. Oro har, azken urteetan gero eta harri gehiago agertzen ari dira, eta aurrez ezagutzen zirenak geroz eta maizago geratzen dira ur mailatik gora, klima aldaketak eragiten dituen lehorte ondorioz. Hala, gosearen harriek, iraganeko zorigaitzak gogorarazteaz gain, etorkizunekoak iragartzen dituzte. ●



T.I.C.

Ebakuntza onkologiko zaharrena

Duela bi urte, Edgard Camarós arkeologo katalanak bi giza garezur eta "Minbizia?" zioen txartel bat topatu zituen kartoizko kaxa baten barruan, Cambridgeko Unibertsitatean. Garezurak Gizatik zetozten, Egiptotik eta berriki *Frontiers in Medicine* aldizkarian argitaratu duenez, bere lantaldeak bi indibiduo horiek minbizia zutela baieztatu du.

Ezagutzen diren minbizi kasu zaharretakoak dira; bietan zaharrenak, gizonezko baten garezurak (argazkian) 4.500 urte inguru ditu. Gainera buruko tumorea kentzeko ebakuntza egin ziotela ere ikusi dute. Ebakuntza oso oinarrizkoa izan zen eta ez zuen arrakastarik izan. Baina ezagutzen den lehen kirurgia onkologikoa da. ●